

# Txistulari eta «Flaviolaire»

JUAN SAN MARTIN

Norbaitek esan du asteroko onek dakarren GAZTE NAIZ orrialdeak ez duela ballorik eta bere ordez deporte gaia obe litzakeala. Olakorik ez, arren! Ori izango litzake etorkizunaren bidea austeia.

Gazteak libre jokatu bear du. Bere erara, naro. Adin bakoitzaren joerak bere ezkutak ditu. Beste adin batekoak (batez ere nagusiagoak) ongi ulertu ezinezko mundu motan bizi da adin bakoitza, belaunik-belaun, garai bakoitzean aldakor. Gaztea bere era ta konzeptuetan libre ez uztea, landare bati eguzkia ukatzea bezelakoa da. Gazteari erakusta ongi dago, baiña beartzea ez. Eta, bere jokerak austeia, ukatzea bezela da. Beraz, arren! ez dedilla galdu, orri ori, astekari onetatik.

GAZTE NAIZ orri onetan kezka berriak nabari dira. Ezin ditzake ukatu. Eta gazte kezkatuegandik bakarrik arkitu genezake gure erriaren etorkizuna. Ez foball-zale burrukatuegandik. Oiengandik, ez! Foball-zaleengandik, geienik ere, beste ogeitak urteetako logalea. Ezerreza bera baiño txarragoa den pakeak ez dakar gizonegandiko fruturik.

Guk bideak libre utzita ere, gaurko gazteak naikoa oztopo du mundu onetan. Orregaitik, gugandik ez dedilla izan iño-lazko eragozpenik beren gogoko orritxo onek.

Aurretiko lan batean azaldu nuan bezela, nik beintzat atsegiñez irakurtzen dut orri ori. Ez euskerak gerorako ortik izan ditzakean probetxua gaitik. Probetxu ori jasotzen ari da. Azken zenbaki auetan ere beste idazle berri bati jo diot begia. Berria ote? Goihenetxe dalakoa, berria edo zarra, ez da edozein. Orrela idazten dueña ezin daiteke izan nornai. Euskera jator menderatzen du; idazkera bizia du; ta gaiak ere, geienean, idaztancerari dagozkionak. Bere lan batek iratzartu nau *Txistulari eta «flaviolaire»* artikulu au idaztera. Bere *Hauzo-lan eta «Aillu»*, irakurtzeak.

Gauzak seriotasunez astinduko bagendukez, konturatuko giñakez gure Euskalerrriak duen balio autoktonorik bereziarena, beste gauza guziak alkartuta aiña balio dueña, euskera dala. Goihenetxek, hauzo-lanaren kideko arkitzen du Peru eta Bolibio'ko errietan egiten dan «Aillu» era orretan. Ta, nik, gaurkoz, adibidez txistulari eta «flaviolaire»-k duen alkarrekiko senidetasuna aztertuko det.

Izan ere, toki guzietan indabarrak egosten dituzte. Ni ez nijoia Goihenetxe bezin urruti txistuaren kidekoak arzitzeke. Ba dakit, Jon Oñatibia adiskideak esan zidanez, Ingalaterra aldean badala txistuaren antzerako bat, doiñu berdiña lortzen ez badu ere. Denok dakigu Xuberoko txirula dala txistuaren anai tikia. Baiña, gutxi, oso gutxi jakingo dute Huesca-n badala, ttun-ttuna bezelakoa «chicotén» deitzen djotena, ta Xuberoan txirulari laguntzen dien ttun-ttuna bezela laguntzen die Huesca-n «chicotén» orrekin (ttun-ttunaren berdiña) «flauta» dietzen dien txistuari.

«Flauta» ori gure txistua bezelakoa da. Diferentzia bakarra, subearen azalez estalia egotea, asi goitik eta bera. «Flauta

ori, dudarik gabe, txirula baiño urbillago dago txistuagandik. Jaka inguruetan asko ikusten da.

Txistua, jatorriz, artzai istrumentoa danez, ez da gaitza kidekoak arkitzen Pirineoan zear. Gerona-n, bestaldeko muturrean, oso ezaguna da «flaviolaire», txistua bezelako «caramillo» izeneko bat gure txistularien erara tanboliñez lagundurik joten dutena. Ikusi ezker ezin uka txistuaren senidea dana.

Baiña, arrigarriagoa oraindik (arrigarri, mundu guzian txistuaren antzerakorik ez dagoala uste dutenentzat), Mallorca-n bada «flaviolaire» bezelakoa, iraindik txistuaren aide geiago duena ta besotik —emengo erara— zintzilirik duen danbolin otsarekin lagundurik joten duena. Ta, arrigarriago, konparsa egiteko bi flautero oietako eta iru gaitero alkarturik joaten dira, bertako artzaien erara jantzita, erriko jaietan eleizan egiten dan dantzari laguntzera.

Gai au astintzen jarraitzera ez litzake oso gaitza beste alderdi batzuetan ere arkitzea.

Izan ere, istrumentu ojek jatorri zaarrak dituzte ta mendeetan aldatuak dira eraz eta tokiz. Orregaitik, txistuak izango ditu bere doai bereziak, baiña ez uste dan beste.

Gascue-ri edo uste det irakurri niola, erromatarrek euskal txistuari *tibia vasca* edo zerbait orrelako deitzen ziela. Erromatarrentzako, *tibia*, erderazko «flauta» zan. Baiña nork daki aiek aipatzen zuten *tibia* oraingo bezelako txistua zanik? *Tibia*, zanko ezurra ere berdin zan. Ezurrezkoa da txistua, ezurrezkoa Huesca-ko «flauta», eta baita Gerona-ko «caramillo» ere ezurrezkoa da.

Orain bost urte, Barandiaran-ek arkitu zuan Atxetako arpean (Forua-Bizkaia) orkatz adar bat bi zulorekin. Txistua ote? Balitz ere ez du oraingoaren antzik. Baiña bai, ba du aidea, Isturitz-en arkituak. Laburdiko arpe onetan billatua egazti ezurrez egiña da ta iru zulo ditu. Passemard-en iritzi Auriñazienze garaiakoa da. Orrela balitz, Altxerri (Aya) arpeko irudiak baiño askoz ere zarragoa da. Baiña ori ere argi dago oraingo txistua bezelakoa ez dala. Izatekoan ere, txistua, txirula, flauta, caramillo, t.a., guzian gurasoa.

Goihenetxe ez dago hauzo-lanaren kontra ni ere ez txistuarena. Konturatzen gerana da, folklokeria gora dijoala izkuntza bera dijoanean. Goihenetxe-rekin diot: «Zerk ezagutarazten du gure herria? Zein gauzak osatzen dute gure herri-nortasuna? Ziplo botako genukean erantzuna, oso ezaguna da: hizkuntza».

## EN LAS PROXIMAS FIESTAS

### HAGA REGALOS DE AMBIENTE VASCO

Adquiera:

El libro titulado **CUENTOS Y LEYENDAS DEL PAIS VASCO**, de José Luis Muñozerro ... .. 75,— Ptas.

Y discos:

**CONCIERTO DE TXISTU**, por José Luis Garay ... 95,— "

**GABON ABESTIAK**, por el coro del Txinpartak ... 95,— "

**JOTAS VASCAS**, por Josu Loroño ... .. 95,— "

**ALBOKA**, bailables vascos con alboka y txiki-trixa del Andra Mari ... .. 95,— "

**FESTIVAL DE LA CANCION VASCA**, con Mendietan y Nora, cantando la Coral de Cámara de Pamplona ... .. 100,— "

**SOROAK**, canciones vascas con moderna interpretación ... .. 95,— "

Y

**LOTERIA VASCA**, un juego ameno con el que aprenderá euskera ... .. 65,— "